

- **1. BALOREZKO PROPOSAMENA:**

Gure proiektuaren bidez, ur botila birziklatu eta pertsonalizatuak eskainiko dizkiegu bezeroei, eguneroko erabilerarako praktikoak, iraunkorrak eta estetikoak direnak. Produktu honekin bi beharrizan nagusi asetzen ditugu, alde batetik plastiko hondakinen murrizketa eta ingurumenarekiko ardura, eta bestetik nortasun propioa adierazteko aukera, botilak bezeroaren gustu, izen, logo edo mezuaren arabera pertsonalizatuz.

Horrez gain, behin-behineko plastikozko botilen erabilera murrizteko alternatiba ekologikoa eskaintzen dugu, osasungarria eta berrerabilgarria dena. Enpresentzat, ikastetxeentzat edo norbanakoentzat, gure botilak opari erabilgarri eta kontziente bihurtzen dira, iraunkortasunaren aldeko balioak transmititzen dituztenak.